



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

# Bertsozalea

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

## Errotarria martxan jarri da Gipuzkoan

**Oñatiko Santa Ana Antzokian hasiko da 2019ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, larunbatean. Saio guztietako sarrerak salgai daude dagoeneko [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) orrialdean.**

16 saio izango ditu irailaren 14an hasi eta abenduaren 14an amaituko den 2019ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Oñatin hasi eta Donostian amaituko da eta 48 parte hartzaile izango ditu. Horietatik 34 bertsolarik maiatzean jokatu zen Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean eskuratu zuten txapelketarako txartela. Gainontzeko 14 bertsolariek duela lau urteko finalurrekoetara sailkatuta eskuratu zuten txartela. Horiez gain, 15 gai jartzaile, 16 epaile eta 4 idazkari eta laguntzaile ugari izango dira txapelketan lanean.

### Aurkezpena, Asteasun

Irailaren 7an Asteasuko plazan bildu ziren Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako parte hartzaileak, aurkezpen ekitaldian. Bertan aurkeztu ziren txapelketaren sintonia eta aldizkaria. [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) helbidean daude entzungai eta ikusgai.

2019an, 100 urte betetzen dira Pello Errota bertsolari asteasuarra hil zela.

Hori dela-eta, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak keinu txiki bat egin nahi izan die Pello Errota eta Mikaela Elizegi bertsolari asteasuarrei eta txapelketako sintonia eta irudia sortzeko abiapuntu gisa hartu du urteurrena.

Sintonia Don Inorrez musika taldeak egin du. Irudia eta diseinu lanak, berriz, Lanku Kultur Zerbitzuak enpresak sortu eta garatu ditu.

### Sarrerak eta jarraipena

Saio guztietako sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean daude salgai -bonuak agortu dira-. Ohi bezala, Bertsozale Elkarteko bazkideek prezio berezia izango dute sarreretan.

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webguneak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren informazio osoa eta eguneratua eskainiko du. Horrez gain, [www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus) atariak txapelketaren jarraipen berezia egingo du.

Sare sozialetan ere Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen profilen bitartez jarraipena egingo zaio Gipuzkoako Bertsolari Txapelketari, #GBTX19 traola erabiliz.

Honenbestez, dena prest da datorren larunbatean, irailaren 14an, Oñatin Gipuzkoako Bertsolari Txapelketari ekiteko. Martxan dago errotarria!



**MAIDER ARREGI MARKULETA**  
Zarautz, 2019-IX-06

Lizardi sariketako txapeladuna

Doinua: ETaren su etenetik

Lehenik eta behin muxu bat zuei ta atzekoentzat Gaur epai irizpideak alde izan ditut behintzat baina oraindik batzutan hartzen gaituzte kideztat emakume florerotzat beste batzutan umetzat... Beraz txapel hau bertsotan dauden emakumeentzat nere ondoan indarra eman didaten ahizpentzat bertsotan jarraitu nahi dut zuekin eta zuentzat



Asteasuko plazan egin zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren aurkezpen ekitaldia. / XDZ

# Udazkenean jokatuko da bigarren taldekako Xilaba

**9 taldek parte hartuko dute aurtengo taldekako Xilaban; 34 bertsulari ariko dira kantuan gai emaile, epaile eta antolatzaile anitzen laguntzarekin.**

Bertsularien Lagunak elkarteak prest dauka taldekako Xilabaren bigarren edizioa. Irailaren 20an hasiko da Itsasun eta 12 saio jokatuko dira udazkenean: lehen fasean 9 saio izanen dira, ondoren bi finalerdi, eta azaroaren 16an bukatuko da xapelketa Izturitzen jokatuko den finalarekin.

Aldiro bi talde lehiatuko dira, eta finalerdiak arte entzulegoko norbait eta beste ligaxketako bertsulariak izanen dira epaile.

## Eragin eremua handituz

Bertsularien Lagunak elkarteko kideek adierazi dutenez, "erantzun ona" izan du bigarren edizioak. "Taldeen kopurua apaldu bada ere, xapelketa bera egonkordu dela erran genezake", adierazi dute. "Gainera, maila iazko xapelketakoa baino orekatuago denez, lehia ederra izanen denaren

segurtamena dugu". Horrez gain, parte hartzaileak ere gogotsu daudela diote, eta data hurbildu heinean urduritasuna eta gogoia nabariak direla.

Horrelako txapelketa baten eraginaz galdetuta, taldekakoa izanik eragin eremua zabalagoa dela adierazi dute. "Taldekako bakoitzak bere saioa antolatzen du eta, ondorioz, leku gehiagotara iristen gara". Gainera, kantatzearen eta antolatzearen arteko harremana oso korapilatsua denez talde gehienek haien saioak beste elkarte edo lagunekin antolatzen dituzte, eragin eremua zabalduz. Egoera bera da elkartearentzat, finalerdiak eta finala tokiko ikastolekin eta elkarteekin elkarlanean prestatuko baitituzte.

Dena prest dago txapelketari ekiteko; has dadila festa!



Izturitzen jokatuko da taldekako Xilabaren finala azaroaren 16an. XDZ

# Hitzetik Hortzerak denboraldi berriari **ekingo dio** urrian

**Astero bertsoari buruzko saioa egongo da ohikoa den moduan, ETB1ean. Era berean, bertsolaritzaren ingurukoak egunero jarraitu ahal izango dira [www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus) atarian.**

Urriaren 6an itzuliko da Hitzetik Hortzera Euskal Herriko etxeetara. Orduz berari eutsiko dio -igandean, 15:00etatik aurrera, ETB1en-, eta udaberrira arte izango dugu lagun, due-la 31 urte hasitako bideari jarraiki.

Bertsozale Elkartea arduratuko da programaz ETBrekin elkarlanean. Iazko lantalde bera ariko da programa ontzen: Eider Perez izango da aurkezlea eta gidoi lanak Txakur Gorria kolektiboak egingo ditu, Bertsozale Elkarteko ikus-entzunezko taldearekin batera.

Iaz *collagea* izan zen programaren irudi euskarria eta aurten maleta bat izango da. Bertan bilduko dira denboraldiko oroitzenak, argazkiak, objektuak, esaldiak... Iazko egituraren gainean zenbait berrikuntza ere izango ditu Hitzetik Hortzera berriak: emakume bertsolarien historia kontatuko du zazpi

ataletan, informazio atala izango du bideoklip formatuan, bertsoa eta beste sorkuntza moldeak gurutzatuko ditu, publikoak bidalitako bertsoaldiak sartzeko aukera izango da, eta umore atala ere izango du programak amaieran. Zenbait jende ezagunen gustuko bertsoaldiak ezagutzeko aukera ere eskainiko ditu Hitzetik Hortzera berriak.

Programan bertsoak izango dira protagonista, eta bakoitzean gai jakin bat landuko da; monografikoak ere izango ditu, bertsolariek euren ibilbideak kontatuz. Hitzetik Hortzeraren ohiko hitzordutik harago, bertsolaritzak beste tarte batzuk ere izango ditu Euskal Telebistan, ekitaldi bereziak medio.

Asteroko saioaz gain, udan etenik izan ez duen [www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus) atariak bere ohiko jardunarekin jarraituko du.



Maleta beteta dakar Hitzetik Hortzerako lantaldeak. / XDZ

## Ireki da bertso-eskola feministetan **izena emateko epea**

**Irailaren 20ra arte egongo da zabalik Ahalduzte Bertso Eskolan eta Gizonezkoen Bertso Eskola Feministan izena emateko epea.**

Urriari hasi eta ekainera bitarte egingo dira Ahalduzte Bertso Eskola eta Gizonezkoen Bertso Eskola Feminista. Hilean behin elkartuko dira talde batekoak zein besteak, larunbat goizean, Amasa-Villabonako Subijana etxean.

Bertso-eskola bietarako izen emate epea zabalik dago. Horretarako, [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian dagoen izen-emate orria bete beharko da irailaren 20a baino lehen.

Ahalduzte Bertso Eskolaren bosgarren ikasturtea izango da aurtengoa. Datorren ikasturtean, pauso berri bat ematera goaz: plazarako trebatu nahi duten emakume gaitzaileentzako ere eskainiko da Ahalduzte Bertso Eskola.

Gizonezkoen Bertso Eskola Feministak, berriz, lehenengo ikasturtea izango du aurtengoa.



## Puntua jarrita

IRURI ALTZERREKA MARTINEZ

Ez da galdera erraza gero planteatzen duzuna! Bertsolaritzaren inguruan gabiltzan guztiok ez dugu bertsoa modu berean bizi edo sentitzen, eta hortaz, galdera erantzuten duenaren arabera hamaika emaitza desberdin egon daitezke. Beraz, hori kontuan izanik eta kontzientziaren barrenean arakatzuz, zure galderari ahalik eta gardenen erantzuten saiatuko naiz.

Bizitza honetan gauza guztiak bezala, bertsolaritzak ere badu minetik eta zirraratik; edo beste modu batera formulatzearen, badu bere alde positiboa eta ez hain positiboa. Nolabait, bi alde horiek momentu edo bizipenen bidez irudikatu daitezke.

Nire kasuan, oholtzara igo aurreko minutu horietan sentitzen dut zirrarara, urduritasunez tximeletak sabelean dantzan nabaritzen ditudanean. Baita ustez bertso on bat bota eta gustura geratzen naizenean, edo etxeko nahiz bertso eskolako lan eta ahaleginak fruituak eman dituela ikustean. Hala ere, bizipen guzti horiek lausotuta geratu daitezke, dena aldrebes irtetzen den horietako egun batean neure burua bertso bat aurrera atera ezin sumatzerakoan, zeharka min egin dezakeen komentario bat entzutean (motel samar ari naizela, bertsotan irribarre egin beharko nukeela...) edo buruan bueltaka dabilen ideia behar bezala adierazteko gai ez izatean.

Aurrez deskribatutakoak adibide batzuk baino ez dira, beste hainbeste egoera ere aipa daitezkeelako. Adierazi nahi dudana egoera laburbiltzeko bertsolaria funambulista batekin konparatuko nuke. Soka gainean oinak pausatu eta oreka mantentzen saiatzen da, horrek eragin dezakeen adrenalina eta zirrararekin; baina aldi berean lurrera erori eta min egin dezakeela jakinik. Behin lurrera eroriz gero, norberaren esku dago amore eman eta garaiz erretiratzea edo kolpe horretatik ikasi eta berriro oreka aurkitzen saiatzea!

Hariarekin jarraitzeko, hona nire galdera Maite Berriozabalentzat: nola mantentzen duzu oreka oholtza gainean/mikrofono aurrean?

# Koplak

## Bertso Udalekuei agur, hurrengo urtera arte!


Arrakastatsuak izan dira aurten ere Bertso Udalekuak. Duzunaritzen, Uitzin, Aubixan, Orion eta Zuhatzan izan dira txandak, eta horietan, 9 eta 18 urte bitarteko 200 bat parte hartzaile izan dira. Gazteekin batera, 40 hezitzaile aritu dira udalekuetan. Udako oroitzapenek bizi-bizi iraun dezaten, bost txandetako ikus-entzunezko bildumak laster izango dira ikusgai [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian.

## Poto-Finixa



## Arrakastatsuak izan dira UPV/EHuko Uda Ikastaroak

Mintzola Ahozko Lantegiak antolatuta *Euskal kulturari so. Bertsolaritzaren artikulazioak*. bi eguneko ikastaroa egin zen abuztuan Donostiako Miramar Jauregian. Ekarpenean benetan interesgarriak izan ziren egun batean zein bestean kulturgintzaren eta bertsolaritzaren inguruan oro har eta zehazki, eta amaitzeko bertso saioa eskaini zen Miramar atariko lorategi ederrean. Hizlariak zein izena emanadakoak oso gustura geratu ziren.



14 SORTZAILE JOLASEAN

Igor Elortza-Joseba Sarrionaindia  
 Uxue Alberdi-Danele Sarriugarte  
 Julio Soto-Gorka Urbizu  
 Nerea Ibarzabal- Eneko Sagardoy  
 Andoni Egaña-Ruper Ordorika  
 Onintza Enbeita- Maite Berriozabal  
 Manex Agirre- Ilaski Serrano

PUBLIZITATEA